

Qumran'go esku-idazkiak

V GORAPEN-ABESTIA

III sorta

³Eskerrak emoten dautsudaz,
Jauna,
nigan zeure aurpegia ditzirazo
dozulako.

⁴[...] Zeuri aintza betikoan
guztiakaz[...].

⁵[...] zure agoa [...] eta Zuk atara egin nenduzun [illobitik].

⁶Onik atara dozu nire arimean.
Areik gorroto eusten
eta itsas-sakonean datzan itsason-
tzia lez egin eben nire biziaz;

⁷arresidun uria lez bere are-
rioen aurrean.

Larritasunak artuta nengoan,
seiña leenengoz ekarri bear dauan
emakumea lez,
bat-batean sein-miñak eltzen ya-
kozanean,

⁸eta aregan oiñaze gorriak so-
matzen diranean,
laban zartaka dagoan zerbaiten
antzera seingintzan diarduan
emakumea
biurketak egitera bearturik.

Semeak eriotz-gogo bizira el-
tzen dira.

⁹Gizon baten seindun egoana,
oiñazeak artuta egoan bere min
biziakaitik;

izan be, bere larritasunen erdian
gizonezko bat ekarren,
eta Sheol'eko (Lezako) miñetatik,

¹⁰seindun egoanaren labatik,
bere aal-izateagaitik onulari mi-
ragarri zan bat etorren argitara,
eta gizonezko bat urteten zan la-
rritasunetatik onik.

¹¹Seindunaren gaiñera bultza-
kada ta oiñaze bizi guztiak amil-
tzen dira orduan.

Semeak jaioten ziran unean,
ikara-larriak beteten ebezan sein-
dun egozanak.

Seiña ekarren unean,
samintasun guztiak batera eltzen
ziran

¹²seindun egoanaren sabelera.
Eta suge bat itxaroten ebana,
min gogorretan sartuta egoan,
eta lezako erasoak zemai ikara-
garriz lertzen ziran.

¹³Arresiaren ondopeak koloka
egozan,
itsas-gaiñean itsasontzia lez;

odeiak, zaratots ikaragarriz, jote
ziarduen,

¹⁴itsasoetatik igaroten diranak
lez egozan;

¹⁵izan be, aren jakituria guztia
euren eragiñak eta lezako orroek
eta olatuen jagiteak eta itsas-go-
rabeerak

¹⁴ezereztu egin izan eben.

¹⁶Itsasoko olatuak ikara-larritz
egiten eben durundi;
Sheol'a (Lezea) eta Abaddon (Le-
zako aingerua) zabaldu egiten zi-
rala zirudian.


Illobiko gezi guztiak

¹⁷egiten eutsoen lagun
eta euren txistuak entzunerazoten
ebezan.

Sheol'eko atek zabaldu egiten zi-
ran
sugearen azpikerien eragiñez.

¹⁸Illobiko atek gaiztakeri-sein-
gintzan ziarduanaren ostean
itxi egiten ziran,
eta ate-orri betikoak sugerean es-
pirituen ostean.

KEREXETA



OTOIZLARI

OTOIZLARI ALDIZKARIA

Belok'eko beneditarrak argiraten dabe, urtean lautan, aldiz-
kari eleizkoi au. Azkenengo zenbakia, 104,105 ta 106 batera da.
Martikoa ta ekaiñekoa orain arte etorri barik egon dira.

Zergaitik?

Frantzia'ko agintariak bidalgoko ikur barik bialtzeko debe-
kua jarri dautsoe eta abesti larregi dakar (ori ez dabe egin bear an-
tza aldizkariak), barri gitxiegi, urtean lautan zabaltzen ez dalako,
irakurlerik erdiak gitxienez urte-saria emon bear leukeelako...

Orra or OTOIZLARI, 28 urtetan agertu dan aldizkaria,
arriskuan.

Oraingoz eta baldintza orreik betetekotan lortu da argitara-
tzea, Gotzaiñaren laguntzaz. Noiz-arte?

Aita Xabier Diharze'k, bere ondoan gaukaz.

ZER